



CONVENIO DE COLABORACION CON CARITAS DIOCESANA DE PAMPLONA Y TUDELA PARA LA CONCESION DE UNA SUBVENCION CON DESTINO A LA ATENCION DE NECESIDADES DE FAMILIAS EN SITUACIÓN DE NECESIDAD DE LA DEMARCACIÓN TERRITORIAL DE LAS PARROQUIAS SANTA MARIA Y SAN ESTEBAN-SAN PABLO DE BARAÑAIN

En Barañáin, a de de 2024.

De una parte, Doña María Lecumberri Bonilla, Alcaldesa del Ayuntamiento de Barañáin, en uso de las competencias atribuidas por la legislación de Régimen Local, en concreto, el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

De otra parte, M^a Teresa Quintana Saldise, Directora de Cáritas Diocesana de Pamplona y Tudela, con domicilio en C/ San Antón nº 8, 1º de Pamplona, y NIF R3103164D, en nombre y representación de dicha entidad.

EXPONEN

Que Cáritas parroquial Santa María de Barañáin y Cáritas parroquial San Esteban y San Pablo de Barañáin vienen realizando, entre otras, la actividad de atención de necesidades de familias en situación de necesidad de la demarcación territorial de la parroquia.

Que el Ayuntamiento de Barañáin está interesado en colaborar con dicha iniciativa, que redundará en beneficio de los vecinos y vecinas de la localidad, posibilitando la atención de necesidades con carácter de urgencia (pago de gastos de vivienda, medicamentos, alimentos...) de familias en exclusión social de la localidad mediante la concesión de una subvención de 19.000,00 € para el año 2024 que se distribuirá (9.500,00 € para Caritas parroquial Santa María y 9.500,00 € para Caritas parroquial San Esteban y San Pablo).

Que Caritas parroquial Santa María de Barañáin y Caritas parroquial San Esteban y San Pablo de Barañáin han presentado un proyecto que desarrolla la Acogida y atención a personas necesitadas de Barañáin en cada una de las demarcaciones de la parroquia.

En virtud de lo expuesto, suscriben el presente Convenio de Colaboración de acuerdo con las siguientes,

LANKIDETZA-HITZARMENA IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CÁRITASEKIN, BARAÑAINGO ANDRE MARI ETA DONEZTEBE-DONE PAULO PARROKIETAKO LURRALDE-MUGAPEAN PREMIA-EGOERAN DAUDEN FAMILIEN BEHARREI ERANTZUTTEKO DIRULAGUNTZA EMATEKO

Barañáin, 2024koaren(a).

Batetik, María Lecumberri Bonilla andrea, Barañaingo Udaleko alkatea, Toki Araubidearen legeriak (zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua) emandako eskumenak erabiliz.

Bestetik, M^a Teresa Quintana Saldise andrea, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritaseko (helbidea: San Anton kalea 8, 1.a, Iruña; eta IFZ: R3103164D) jarduneko zuzendaria, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz.

AZALTZEN DUTE

Barañaingo Andre Maria elizako Cáritasek eta Barañaingo Doneztebe eta Done Paulo elizako Cáritasek, besteak beste, parrokiako lurralde-barrutian premia-egoeran dauden familien beharrei erantzuteko jarduera egiten dute.

Barañaingo Udalak ekimen horretan laguntzeko interesa du; herriko bizilagunen onurarako da ekimen hori. Hala, herrian gizarte-bazterkerian dauden familien premia-egoerari (etxebizitza-gastuak, sendagaiak, elikagaiak... ordaintzea) erantzun ahal izango zaio 2024rako 19.000,00 €-ko dirulaguntza emanez. Dirulaguntza hori honela banatuko da: 9.500,00 € Andre Maria elizako Cáritasentzat eta 9.500,00 € Doneztebe eta Done Paulo elizako Cáritasentzat.

Barañaingo Andre Maria elizako Cáritasek eta Barañaingo Doneztebe eta Done Paulo elizako Cáritasek parrokiako barruti bakoitzean Barañaingo behartsuentzako harrera eta arreta garatzen duen proiektua aurkeztu dute.

Adierazitakoaren ondorioz, honako lankidetzahitzarmen hau izenpetzen dute, betiere xedapen hauekin bat:



ESTIPULACIONES

PRIMERA. - Objeto

Es objeto del presente Convenio, la concesión de una subvención nominativa, prevista en los presupuestos de 2024, de 19.000,00 € por parte del Ayuntamiento de Barañáin a Cáritas Diocesana de Pamplona y Tudela con el fin de que sea destinada a la actividad de atención de necesidades con carácter de urgencia (pago de gastos de vivienda, medicamentos, alimentos..) de familias en exclusión social de la demarcación territorial de la parroquia que vienen realizando Cáritas Parroquial Santa María y Caritas parroquial San Esteban y San Pablo de Barañáin a familias necesitadas en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2024 y el 31 de diciembre de 2024.

SEGUNDA. - Obligaciones del Ayuntamiento de Barañáin

En virtud de ello el Ayuntamiento de Barañáin concede a Cáritas Diocesana de Pamplona y Tudela una subvención de 19.000,00 € con cargo a la partida 41 23991 48200 ("Subvenciones a Entidades sin ánimo de lucro") que serán entregadas a Caritas parroquial Santa Maria de Barañáin y a Caritas San Esteban y San Pablo para el año 2024. El 75% de la subvención se abonará a la firma del presente convenio y el 25% restante previa presentación de memoria de actividades y justificación de gasto.

TERCERA. - Compatibilidad e Incompatibilidad

La presente subvención resulta compatible con otras que pudiera obtener el /la beneficiario/a para la realización del objeto de esta subvención.

CUARTA. - Obligaciones de Cáritas

Cáritas se obliga a destinar la subvención concedida a la actividad descrita en la estipulación primera y a justificar la aplicación de la subvención para la finalidad para la que ha sido concedida, mediante la presentación de la documentación que se describe a continuación en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Barañáin (disponible a través de la sede electrónica en la dirección www.baranain.es).

La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:

- Instancia general del Ayuntamiento de Barañáin firmada por la presidencia de la entidad o quien tenga conferida la delegación.

XEDAPENAK

LEHENA. - Xedea

Hitzarmen honen xedea da Barañaingo Udalak 19.000,00 €-ko dirulaguntza izenduna (2024ko aurrekontuetan aurreikusitakoa) ematea Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritasi, parrokiako lurralde-barrutian gizarte-bazterketako egoeran dauden familien premiazko beharrei (etxebizitza-gastuak, sendagaiak, elikagaiak... ordaintzea) erantzuteko jarduerarako; hain zuzen ere, jarduera hori Barañaingo Andre Maria elizako Cáritas eta Doneztebe eta Done Paulo elizako Cáritas familia behartsuentzat egiten ari dira 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean.

BIGARRENA. - Barañaingo Udalaren betebeharrak

Horrenbestez, Barañaingo Udalak 19.000,00 €-ko dirulaguntza eman dio Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritasi, 41 23991 48200 partidaren ("Dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko erakundeei") kontura. Dirulaguntza horiek Barañaingo Andre Maria elizako Cáritasi eta Doneztebe eta Done Paulo elizako Cáritasi emango zaizkie 2024rako. Dirulaguntzaren % 75 hitzarmen hau sinatzen denean ordainduko da, eta gainerako % 25a, jardueren memoria eta gastuaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARRENA.- Bateragarritasuna eta bateraezintasuna

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunak dirulaguntza honen xedea gauzatzeko lor ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin.

LAUGARRENA. - Cáritasen betebeharrak

Cáritasek lehen hispaketan deskribatutako jarduerara bideratu beharko du emandako dirulaguntza, eta dirulaguntza eman den helbururako erabili dela justifikatu beharko du. Horretarako, jarraian azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du Barañaingo Udaleko erregistro elektronikoa (egoitza elektronikoaren bidez eskura daiteke, helbide honetan: www.baranain.eus).

Justifikazio-kontuak informazio hau bilduko du:

- Barañaingo Udalaren eskabide orokorra, entitateko lehendakariak edo eskuordetza duenak sinatuta.



- b. Una memoria justificativa de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Por ejemplo, objeto inicial, incidencias destacables, logro de objetivos, número de personas beneficiadas, dificultades, conclusiones en relación al tratamiento de la perspectiva de género, esto es realizar un análisis de la situación diferencial de mujeres y hombres en el ámbito de la actuación del proyecto, a partir de la segregación de los datos por sexo, interpretación desde la perspectiva de género (identificar las diferentes situaciones, necesidades, intereses, aspiraciones y problemáticas específicas de mujeres y hombres).
- c. Relación de gastos e ingresos conforme al modelo del Anexo I del presente convenio.
- d. Declaración responsable, firmada por la representación legal de la entidad beneficiaria, de que son ciertos todos los datos contenidos en la documentación que compone el informe final presentado.
- e. Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago (Anexo II en formato Excel y pdf). En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.
- f. Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.
- g. En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.
- b. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak justifikatzen dituen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Adibidez, hasierako xedea, gorabehera azpimarragarriak, helburuen lorpena, onuradun kopurua, zailtasunak, genero-ikuspegiaren tratamenduari buruzko ondorioak; hau da, emakumeek eta gizonek proiektuaren jardun-eremuan duten egoera bereizgarria aztertzea, datuak sexuaren arabera bereizita, genero-ikuspegitik interpretatuta (emakumeen eta gizonen egoera, premia, interes, jomuga eta arazo espezifikoak identifikatzea).
- c. Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda, hitzarmen honen I. eranskineko ereduaren arabera.
- d. Erakunde onuradunaren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako azken txostena osatzen duen dokumentazioko datu guztiak egiazkoak direla adierazten duena.
- e. Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen-datarekin eta ordainketa-datarekin (II. Eranskina, Excel eta PDF formatuan). Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

Organo emaileak, laginketa-tekniken bidez, egokiak iruditzen zaizkion egiaztagiriak egiaztatuko ditu dirulaguntza egoki aplikatu delako zentzuzko froga gisara; horren karira, hautatutako gastu-egiaztagiriak eskatu ahalko dizkio onuradunari.
- f. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.
- g. Hala balegokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko gerakinak badaude, baita haiei dagozkien interesena ere.



La justificación de la aplicación de la subvención se realizará antes del 31 de enero de 2025. Excepcionalmente y previa presentación de instancia de solicitud antes del 31 de enero de 2025, se extenderá este plazo hasta el 31 de marzo de 2025 si así lo resuelve el órgano municipal competente para aquellos proyectos que no se hayan podido ejecutar en los plazos previstos por causas justificadas, así como aquellos otros cuya duración así lo requieran.

QUINTA. - Duración del Convenio.

La duración del presente Convenio se extenderá desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2024.

SEXTA. - Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos de las partes.

Se establece una Comisión de Seguimiento para el seguimiento y control de la adecuada ejecución de las actividades que se derivan del presente convenio.

La Comisión de Seguimiento, deberá reunirse al menos una vez durante la producción de efectos del Convenio y estará integrada por dos representantes nombrados por el Ayuntamiento de Barañáin (Trabajadoras Sociales del Servicio Social de Base) y dos representantes de Cáritas Diocesana de Pamplona y Tudela.

Los acuerdos adoptados en el seno de la Comisión serán vinculantes para las partes.

Las funciones de la Comisión serán las siguientes:

- a) Seguimiento de las actividades realizadas en ejecución del presente Convenio.
- b) Interpretación y resolución de las discrepancias o incidencias que pudieran surgir en la interpretación o ejecución del presente Convenio.

El régimen de funcionamiento y toma de acuerdos de la Comisión de Seguimiento y Evaluación, se ajustará a lo establecido en la Sección III del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SEPTIMA. - Consecuencias del incumplimiento

En caso de incumplimiento del Convenio por parte de Cáritas Diocesana de Pamplona y Tudela, procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

Dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da. Salbuespenez, eta 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen eskabide-orria aurkeztuta, 2025eko martxoaren 31ra arte luzatuko da epea, horrelakorik erabakitzen badu udal-organo eskudunak, justifikatutako arrazoiak direla-eta ezarritako epeetan gauzatu ahal izan ez diren proiektuetarako, bai eta haien iraupena dela-eta epe luzeagoa eskatzen duten horietarako ere.

BOSGARRENA. - Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte iraungo du.

SEIGARRENA. - Hitzarmenaren eta alderdien konpromisoen betearazpenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoak.

Jarraipen Batzorde bat eratu da, hitzarmen honen ondoriozko jarduerak behar bezala gauzatzen direla kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko.

Jarraipen Batzordea gutxienez behin bildu beharko da hitzarmenaren ondorioak sortzen diren bitartean, eta Barañaingo Udalak (oinarrizko gizarte zerbitzuko gizarte langileak) izendatutako bi ordezkari eta Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritaseko bi ordezkari osatuko dute.

Batzordearen barruan hartutako erabakiak lotesleak izango dira alderdientzat.

Batzordearen eginkizunak hauek izanen dira:

- a) Hitzarmen hau gauzatzeko egindako jardueren jarraipena.
- b) Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean sor daitezkeen desadostasunak edo gorabeherak interpretatzea eta ebaztea.

Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen funtzionamendu- eta erabaki-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko titularen II. kapituluaren III. atalean ezarritakora egokituko da.

ZAZPIGARRENA. - Ez betetzearen ondorioak

Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritasek hitzarmena betetzen ez badu, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, eta dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio.



Cuando el cumplimiento por la entidad subvencionada se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite por éste una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar deberá responder al principio de proporcionalidad.

Las posibles infracciones en materia de subvenciones que pudieran ser cometidas por la entidad subvencionada se graduarán y sancionarán de acuerdo con lo establecido en el título IV, Capítulos I y II de la citada Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

OCTAVA. - Modificación del Convenio

La modificación del contenido del Convenio sólo podrá producirse por acuerdo unánime de los firmantes.

NOVENA. - Extinción del Convenio

El Convenio se extinguirá por vencimiento del plazo previsto en la cláusula cuarta, por incumplimiento del resto de las obligaciones asumidas por cualquiera de las partes previa denuncia realizada por escrito con una antelación mínima de un mes, o por decisión de cualquiera de las partes fundamentada en la existencia de causas que obstaculizan el cumplimiento del Convenio.

El Ayuntamiento de Barañáin podrá resolver el presente Convenio por incumplimiento de las obligaciones contenidas en la estipulación tercera, estando en ese caso Cáritas obligada al reintegro total o parcial de la cantidad percibida, atendiendo al grado de incumplimiento y demás circunstancias concurrentes.

DÉCIMA. - Protección de Datos

Ambas organizaciones indican que los datos de carácter personal que constan en el presente documento van a ser tratados con la finalidad del cumplimiento del convenio suscrito.

Los datos se conservarán el tiempo necesario para el cumplimiento de la finalidad señalada y se almacenarán mientras puedan tener responsabilidades derivadas de su tratamiento. Igualmente deben cumplirse las normas de conservación establecidas en la Ley Foral 12/2007, de 4 de abril, de archivos y documentos.

Respecto a los datos de carácter personal recogidos para su tratamiento tienen la posibilidad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación,

Diruz lagundutako entitatearen betetze-maila guztizko betetze-mailatik nabarmen hurbil dagoenean, eta hark argi eta garbi egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzera bideratutako jarduera bat egin duela, itzuli beharreko zenbatekoak proportzionaltasun-printzipioari erantzun beharko dio.

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-haustea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 aipatutako Lege Orokorraren IV. tituluko I. eta II. kapituluetan ezarritakoaren arabera graduatu eta zehatuko dira.

ZORTZIGARRENA. - Hitzarmena aldatzea

Hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez erabaki beharko dute.

BEDERATZIGARRENA. - Hitzarmenaren iraungipena

Hitzarmena iraungi egingen da honako arrazoi hauen ondorioz: laugarren klausulan aurreikusitako epea agortzea; alderdiren batek bere gain hartutako gainerako betebeharrak ez betetzea gutxienez hilabete lehenago hala salatzeta bada, idatziz; edo alderdiren batek hala erabakitzea hitzarmena betetzea eragozten duten arrazoiak egotea oinarri hartuta.

Barañaingo Udalak hitzarmen hau baliogabetu dezake hirugarren xedapenean dauden betebeharrak ez betetzeagatik; eta, hala gertatuz gero, Cáritas behartuta dago jasotako kopurua osorik edo haren parte bat itzultzera, kontuan harturik ez betetze-maila eta gainerako inguruabarrak.

HAMARGARRENA. - Datuen babesa

Bi erakundeek adierazi dute dokumentu honetan jasotako datu pertsonalak sinatutako hitzarmena betetzeko erabiliko direla.

Datuak aipatutako xedea betetzeko beharrezko denboran gordeko dira eta tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzaketen bitartean biltegiratuko dira. Era berean, 12/2007 Foru Legean, apirilaren 4koan, artxiboei eta dokumentuei buruzkoan, ezartzen diren kontserbazio-arauak bete behar dira.

Tratamendurako bildutako izaera pertsonaleko datuei dagokienez, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, horien aurka egiteko, horien trata-



oposición, limitación del tratamiento supresión y portabilidad, mediante solicitud dirigida por escrito.

Adicionalmente pueden dirigir sus reclamaciones en materia de protección de datos a la Agencia Española de Protección de datos a través de los formularios que esta entidad tiene habilitados al efecto en su página web www.agpd.es.

UNDÉCIMA. -Comunicación de datos personales

Para el cumplimiento del presente convenio ambas organizaciones podrán comunicarse datos de carácter personal, para lo cual se comprometen a contar, previo a la comunicación de los datos con el consentimiento informado de las personas usuarias de sus respectivos servicios.

DUODÉCIMA. -Naturaleza del Convenio.

El presente Convenio de Colaboración tiene carácter administrativo y se registrará por las estipulaciones recogidas en este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa; ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley Foral 6/1990 de 2 de julio de la Administración Local de Navarra; Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, Ley Foral 2/1995 de 10 de marzo de Haciendas Locales de Navarra; Ley foral 13/2007 de 4 de abril, de la Hacienda Pública de Navarra; Ley general de subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre.

En consecuencia, las cuestiones litigiosas que se produzcan durante la vigencia del presente Convenio serán dirimidas por la jurisdicción contencioso-administrativa.

**La Alcaldesa del Ayuntamiento de Barañáin/
Barañaingo Udaleko alkatea.**

mendua mugatzeko, ezabatzeko eta horien eramangarritasuna gauzatzeko eskubideak baliatzeko aukera dute, idatziz egindako eskaera bidez.

Horrez gain, datuak babesteari buruzko errekamazioak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidal ditzakete, erakunde horrek bere webgunean (www.agpd.es) horretarako prestatuta dituen formularioen bidez.

HAMAIKAGARRENA. -Datu pertsonalen komunikazioa

Hitzarmen hau betetzeko, bi erakundeek datu pertsonalak komunikatu ahal izango dizkiote elkarri. Horretarako, konpromisoa hartzen dute, datuak jakinarazi aurretik, beren zerbitzuen erabiltzaileen baimen informatua izateko.

HAMABIGARRENA. -Hitzarmenaren izaera.

Lankidetzeta-hitzarmen honek izaera administratiboa du. Dokumentu honetan jasotako hizpaken arabera arautuko da; eta, bertan aurreikusi ez denari dagokionez, honako araudi honetan ezarritakoaren arabera: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; 280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena; 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa; 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa; Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

Ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak erabakiko ditu hitzarmen honen indarraldian zehar sortzen diren auziak.

**La Directora de Cáritas/
Cáritaseko zuzendaria.**



ANEXO I

I. ERANSKINA

DATOS ECONÓMICOS REALES DEL PROYECTO 2024

2024ko PROIETUAREN EGIAZKO DATU EKO- NOMIKOAK

Ingresos/ Diru-sarrerak		Gastos/ Gastuak	
Subvención concedida Ayuntam- iento de Barañáin/ Barañaingo Udalak emandako diru-laguntza		Funcionamiento/ Funtzionamendua	
Gobierno de Navarra/ Nafarroako Gobernua		Equipamientos, materia- les y sum./ Ekipamenduak, materia- lak eta hornid.	
Corporaciones Locales/ Toki Korporazioak		Personal/ Langileak	
Administración del Estado/ Estatuaren administrazioa		Actividades (especificar)/ Jarduerak (zehaztu)	
Comunidad Europea/ Europako Erkidegoa		Gastos administrativos/ Administrazio-gastuak	
Entidades privadas/ Entitate pribatuak		Otros (especificar)/ Bestelakoak (zehaztu)	
Entidades financieras/ Finantza-entitateak			
Fondos propios/ Funts propioak			
Otras fuentes de financiación (Especificar): Beste finantzabide batzuk (ze- haztu):			
Total/ Guztira		Total/ Guztira	



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala
Navarra/ Nafarroa

Pza. Consistorial, s/n.- Udaletxe plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)
Telf.: 948 28 63 10
Fax: 948 18 13 08

ANEXO II.				II.ERANSKINA			
RELACIÓN CLASIFICADA DE GASTOS E INGRESOS DE LA ACTIVIDAD REALIZADA				EGINDAKO JARDUERAREN GASTUEN ETA DIRU-SARRERAK ZERRENDA SAILKATUA			
PROVEEDOR/ HORNITZAILEA	CIF PROVEEDOR/ HORNITZAILEAREN IFK	Nº DOCUMENTO/ AGIRI ZK.	FECHA DOCUMENTO/ AGIRI DATA	FECHA PAGO/ ORDAINKETA DATA	CONCEPTOS/ KONTZEPTUAK	GASTOS/ GASTUAK	INGRESOS/ DIRU-SARRERAK
INCLUIR TANTOS ANEXOS COMO SEAN NECESARIOS / BEHAR ADINA ERANSKIN SARTU						TOTAL / GUZTIRA	
						0,00 €	0,00 €

El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la entidad beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

Organo emaileak, laginketa-tekniken bidez, egoki iritzitako egiaztagiriak egiaztatuko ditu, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.